

## AUTOEBALUAZIOA

## II. MODULUA: DOSI ANITZEKO ZINETIKA

1. Dosi anitzeko erregimen batean, oreka egonkorra:
  - a) Bakarrik lortzen da dosi tartekak eta eliminazio erdibizitzak balio berdina badute
  - b) Bakarrik lortzen da tarte terapeutikoa estua bada
  - c) Farmakoaren sarrera abiadura eliminazio abiadurarekin berdintzen denean lortzen da
  - d) Hurrengo dosia administratzerakoan, aurreko dosiko farmakorik geratzen e denean lortzen da
  
2. Metaketa faktorea:
  - a) Bakarrik eliminazio konstantearen menpe dago
  - b) Oreka egonkorreko kontzentrazioen eta lehenengo dosiarekin lortutako kontzentrazioen arteko erlazioa da
  - c) Dosi tartearikiko independentea da
  - d) Dosiaren eta dosi tartearen menpe dago
  
3. Zeren menpe dago oreka egonkorra lortzeko behar den denbora?
  - a) Eliminazio konstantea
  - b) Dosia
  - c) Eliminazio konstantea eta dosi tartea
  - d) Dosi tartea
  
4. Eguneko dosi berdina duten dosi erregimen ezberdinak:
  - a) Kontzentrazio plasmaticoen gorabehera nagusia dosi tartea txikiagoa denean ematen da
  - b) Oreka egonkorrean batez besteko kontzentrazio ezberdinak lortzen dituzte
  - c) Oreka egonkorrean batez besteko kontzentrazio berdinak lortzen dituzte

5. Dosi anitzeko erregimen batean, Ke-ren balioa handitzerakoan:
- a) Oreka egonkorra lortzeko behar den denbora gutxitzen da eta kontzentrazio plasmaticoak baxuagoak dira
  - b) Oreka egonkorra lortzeko behar den denbora gutxitzen da eta kontzentrazio plasmaticoak handiagoak dira
  - c) Oreka egonkorra lortzeko behar den denbora handitzen da eta kontzentrazio plasmaticoak baxuagoak dira
  - d) Oreka egonkorra lortzeko behar den denbora aldatzen da baina kontzentrazio plasmaticoak oreka egonkorrean ez dira aldatzen
6. Dosi anitzeko erregimen batean, Ka-ren balioa txikitzerakoan:
- a) Batez besteko kontzentrazioa ez da aldatzen eta kontzentrazio plasmaticoen gorabeherak txikitzen dira
  - b) Batez besteko kontzentrazioa ez da aldatzen eta kontzentrazio plasmaticoen gorabeherak handitzen dira
  - c) Batez besteko kontzentrazioa txikitzen da
  - d) Batez besteko kontzentrazioa ez da aldatzen, ezta kontzentrazio plasmaticoen gorabeherak ere